



3 OSASUNA ETA ONGIZATEA



HELBURUA:

Guztiantzako eta adin guztietan bizimodu osasungarria bermatzea eta ongizatea sustatzea

3. GJHk pertsona guztien osasunean eta ongizatean eragin nahi du, horretarako zerbitzu egokiak eskainiz, bizi-ohitura eta bizi-estilo osasungarriak sustatuz eta osasunean inpaktua izan dezaketen eraginak kontrolatuz. Udalerrian behar desberdinak daude eta horren araberrako edo egokitutako eskaintza ematea da helburua.

Horretarako ondorengo arloak lantzen dira...

- Gaixotasunak eta hauen prebentzio eta hobekuntzarako zerbitzu eta ekipamenduak
- Bizi-estilo eta -ohitura osasuntsuak: osasunaren sustapena, adikzioen prebentzioa, jarduera fisikoa eta kirola, mugikortasun ohiturak
- Mugikortasunaren hiri antolamendua
- Ingurumen osasunak pertsonen osasunean duen eragina: airearen kalitatea, zarata eta kutsadura elektromagnetikoa

Garapen Jasangarrirako **3. Helburuak** lantzen dituen arloak kontuan hartuz, jarraian zehazten diren GJHekin ditu lankidetzatza eremu gehien:



ZEIN PUNTUTAN DAGO ZARAUTZ?

Bizi garen lekuak eragina du gure osasunean. Ingurune fisikoa, ezaugarri sozioekonomikoak eta kulturalak, hirigintza, eskura dauden zerbitzu publiko edo pribatuak eta aisialdiko ekipamenduak dira, besteak beste, osasunean eta bizi ohitura osasuntsuak sustatzeko orduan (kirola, mugikortasun moduak...) eragina duten faktoreak.


Pertsonen osasun egoeraren argazkia Zarautzen



Iturria: Eustat

Zarautzarren **bizi-itxaropena** Gipuzkoako biztanleen berdina da eta Euskadiko biztanleena baino zertxobait altuagoa. Sexuaren arabera bananduz, **zarautzar emakumeen bizi itxaropena 86,3** urtekoa zen 2016an, gizonezkoena, ia 6 urte gutxiago, 80,5. Azken 10 urteetan gainera, bai emakumezko eta baita gizonezkoak ere urte gehiagoz bizi dira, emakumezkoen bizi-itxaropena 1,7 urtetan handitu delarik eta gizonezkoena 2,9 urtetan.

Hurrengo mapetan, Zarautzeko eremu desberdinetan kausa desberdinengatik egon daitekeen **hilkortasuna** adierazten da, ezkerrekoa emakumezkoena eta eskuinekoa gizonezkoena. Kolore marroiaz adierazten diren eremuek, Euskadiko biztanleria osoa baino hilkortasun-arrisku handiagoa izango dute, aitzitik, berde-urdinxka kolorekoek, Euskadi osoan baino hilkortasun-arrisku txikiagoa adierazten dute.




Iturria: Euskadiko populazioaren osasunaren atlasa. Hilkortasun-atlasa 2008-2012.

Zarautzeko emakumeen hilkortasun-arriskua Euskadiko emakumezkoena baino %11 handiagoa da, gizonezkoena aldiz antzekoa. Auzoen arabera egiten badugu azterketa, bai emakumezkoen kasuan, baita gizonezkoenean ere, nekazal eremuak dira arrisku handienekoak, aldiz Mendilauta eta Iñurritzak erakusten dute orokorrean Euskadikoa baino arrisku txikiagoa, naiz eta aldeak izan emakume eta gizonezkoen artean.

Emakumezkoen artean hilkortasun-arrisku handiena erakusten duten kausak eta Euskadiko biztanlearen gainera daudenak ondorengoan dira: biriketako gaixotasun buxatzaile kronikoa (BGBK), dementzia eta Alzheimer gaixotasuna, zirkulazio sistemako gaixotasunak, biriketako minbizia eta arnas aparatuko gaixotasunak. Gizonezkoen kasuan ondorengoak: zirrosia, eta dementzia eta Alzheimer gaixotasuna.

Bizi garen eremuko **ezaugarri sozioekonomikoak** (heziketa maila, klase soziala, errenta...) eragina dauka pertsonen osasunean, izan ere, behar handieneko egoera sozioekonomikoan

diren pertsonak urte gutxiago bizi dira eta osasun okerragoa izan ohi dute. Horren arrazoia da bai osasunaren baliabide sustatzaile eta babesleak, bai pertsonen dituzten arrisku-faktoreak zeharo baldintzaturik daudela euren egoera sozioekonomikoengatik. Zarautzen kasuan gabezia sozioekonomikoaren egoera onenak Talaimendi, Mendilauta, Iñurritza, San Pelaio eta Zelaieta zonaldeek erakusten dute, aldiz egoera txarrena Itsasmendi, Zelaiondo, Etxebeltz, Azkenportu eta Aritzataldeko eremu batzuk dira.



Iturria: Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco. geoEuskadi.

Osasun ekipamendu eta zerbitzuak

Ekipamendu eta zerbitzu sanitarioei dagokienez, Zarautzen ondorengoak daude:

- Osakidetzak kudeatzen dituen
 - o Osasun Zentroa edo anbulatorioa
 - o Osasun Mentaleko Zentroa
- Udaleko Osasunaren sustapena eta adikzioen prebentziorako zerbitzua, zeinetan osasuna ikuspegi komunitario eta zabal batetatik lantzen den, arazoak dituzten edo kezkatuak dauden talde eta norbanakoei zuzendutako zerbitzua eskainiz. Arlo honetan, Udalak zenbait zerbitzu eta ekimen garatzen ditu:
 - o Prebentzio eta osasunaren sustapena **familian**, informazioa eta orientazioa eskainiz.
 - o Prebentzio eta osasunaren sustapena **eskolan**, Zarauzko ikastetxeekin elkarlanean, osasun eta hezkuntza baloreak sustatzeko programa desberdinak burutzen direlarik eskoletan.
 - o **Jai eremutako** prebentzioa, eremu horietan ematen diren droga-kontsumoari lotutako arriskuak murriztea helburu duten esku hartzeak egiten direlarik.
 - o **Adikzioen prebentziorako IV. tokiko plana 2018-2022**, Udalak adikzioen prebentzio landu eta pertsona guztien bizimodu osasuntsuak sustatzeko konpromisoari erantzutea helburu duen plana hain zuzen ere. Lehenik eta behin errealitatearen azterketa egin zen, horren arabera eskuhartzeko proposamenak jasotzen dituen plana osatuz.

2022an zehar Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, buruko gaixotasunak dituzten pertsonen zuzendutako tutoretzapeko bi pisu martxan jartzea aurreikusten da.

Zarautzen hainbat elkarte daude herritarren ongizaterako eta osasunerako jarduerak, ekintzak, programak eta zerbitzuak eskaintzen dituztenak. Zarauzko Udalak diruz laguntzen ditu elkarte horiek, gizarte zerbitzuen arloko jarduerak egiten dituzten erakunde sozialak dira eta norgehiagoka prozeduraren bidez jasotzen dituzte diru-laguntzak.

Aipatu bezala, Udalak diruz laguntzen dituen elkarte horiek herritarren ongizatearekin eta osasunarekin lotutako jarduerak, ekintzak, programa eta zerbitzuak ematen dituzte eta udalarekin harreman zuzena dute, koordinazio eta elkarlanean aritzen direlarik urte guztian zehar.

Jarduera fisikoa eta Kirola

Zarauzko herritarrak aktiboak izatea da Udalaren helburuetako bat; bai jarduera fisikoaren praktikari dagokionez, baita sozialki ere herri partehartzailea eta bizia izan dadin. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) diseinatutako **2018-2030 jarduera fisikoari buruzko ekintza plan globala** Eusko Jaurlaritzaren Mugimint proiektuaren baitan itzuli egin da: **Pertsona aktiboagoak mundu osasuntsuago baterako**. Bertan 4 helburu nagusi zehaztu eta planifikatzen dira:

- Gizarte aktiboak sortzea
- Ingurune aktiboa sortzea
- Pertsona aktiboak sortzea
- Sistema aktiboak sortzea

Zarautzeko Udalak bere helburua betetzeko (Zarauzko herritarrak aktiboak izatea) erreferente izan daiteke "Pertsona aktiboagoak mundu osasuntsuago baterako" dokumentua.

Zarautzen kirola herritarren identitatearen parte izan da betidanik, kirol kultura txertatuta baitago herritar askoren bizi ohituretan. Halere, gizarte maila guztietara ez da iritsi oraindik jarduera fisikoaren praktika, eta udalak berau herritar guztiei bermatzeko betebeharra dauka dakartzan onura guztiengatik, besteak beste: osasuna (fisiko, emozionala), gizarte bateratzaile eta komunitate eragile, ahalduntzea,...

Hori guztiagatik, eta mota orotako herritarrek jarduera fisikoa praktikatzeko aukera izan dezaten, ondorengo ibilbideen ikuspegiak sailkatzen du jarduera fisikoa udalak:

- **Kirol hastapena:** Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen eta arautzen duen marko eta programen baitan, haur eta gaztetxoei zuzendutako eskaintza da. Herriko eskolak abiapuntu-eragile dira eta kirol elkarteak asistentzia teknikoan-eragile.
- **Kirol federatua:** Udalerrian dauden kirol elkarten bitartez, modalitate desberdinetako kirola praktikatzeko aukera zabala. Errendimendu bidea berau, non lehiaketa ofizialetan parte hartzea duten ardatz.
- **Denontzako kirola:** Osasuna, aisia, ondo pasatzea... helburu izanik, kirol departamentuaren jarduera-ikastaro eta zerbitzuen eskaintza Aritzbatalde kiroldegian. Baita, kiroldegitik kanpo udalak, kirol klubek eta bestelako eragileek eskaintzen dituzten jarduera fisikorako aukerak. Edo eta, Zarauzko inguruneak (mendi, itsaso, bidegorri) herritarrei libreki izatez ematen dizkien bideak aktibo izateko.

Kirol ekipamendu eta zerbitzuei dagokienez, udalak **kirol azpiegitura** zabala dauka, gune ezberdinetan egituratzen dena:

- **Aritzbatalde kiroldegia:**
 - o 3 igerileku
 - o gune termala
 - o fitness eremua
 - o jarduera aretoak
 - o pilotalekua
 - o squash frontoiak (2)
 - o erabilera anitzeko pista
 - o kirol klubetako bulegoak
 - o halterofilia-gimnasioa
- **Lizardi kirol aretoa:** erabilera anitzeko pista

- **Asti kirol eremua:** futbol zelaiak, errugbi zelaia eta klub en erabilera-gimnasioa dauzka bere baitan.
- **Kanpo jarduerarako espazioak:** Herrian zehar hainbat espazio daude kanpo jarduerak burutzeko aukera eskaintzen dutenak, lehen bosten kudeaketa eta mantenuaz udala arduratzen da:
 - o Borguetto skate parkea, kalistenia parkea eta Desertu txikiko hondartzako boleibol sareak, mahai tenisa
 - o Zelaiondo: bolatokia, erabilera anitzeko kanpo pistak
 - o Itxasmendiko erabilera anitzeko kanpo pistak: tenisa, saskibaloia, eskubaloia, futbola eta atletismoan aritzeko eremuak
 - o Abendañoko belardia
 - o Frontoiak
 - o Ikastetxeetako kanpoko kirol instalazioak
 - o Eremu naturala: naturan modu librean kirola egiteko aukerak. Aipagai itsasoan surfarekin gertatzen ari den masifikazioa.

Adierazi era berean, Udala **kirol politika sozial eta ekonomikoa** finkatzen ari dela gaur egun. Horren isla dira, ordenantza fiskala, arautegiak eta zerbitzuen eskaintza adibidez. Aipatzekoak dira, bide beretik, udal programak ere: senior aktiboa sustapen programa, dibertsitate aktiboko sustapen programa, gizarte eskuhartze eta kooperazioa programa eta eskola umeen igeri egiteko programa. Jomugan daude halaber; emakumea aktiboa programa eta gazte aktiboa programa.

Azpimarratzekoa da bestalde **Kirol elkarten jarduna**, giltzarri eta ordezkazina dena Zarautzen: Zarauzko Kirol elkarte, Zarauzko Arraun elkarte, Zarauzko Triatloi elkarte, Zarauzko Zikloturismo elkarte, Zarauzko Txirringulakari kirol elkarte, Zarauzko Surf elkarte, Zarautz Balea igeriketa kirol elkarte, Pagoeta mendizale elkarte, Antoniano kirol elkarte, Zarauzko Xingola Gimnasia kirol elkarte, Judo klub lizardi, Shidokan karate kirol elkarte, Jira bira cycling, Got orientazio kirol kluba, Zelaiondo Bol&Tok kirol kluba, Hondar kayak piraguismo kirol elkarte, Niktri, Shelter surf elkarte, a3elkm.

Elkarte hauen ohiko jardun etengabe eta baliotsuaz gain, aipatzekoak dira, nagusiki eragile hauek eta udalerriko beste hainbat eragilek, Udalaren babesarekin, Zarautzen antolatzen dituzten kirol ekimen-ekitaldi guztiak urtean zehar. Ohiko urte bateko ekimen-ekitaldiak ondorengoak dira:

- Hondartzako futbola- Plaiaroak
- Hondartzako eskubaloia- Txaparrotan
- Herri krossak: Bikote mistoen herri krosa (parekidea guztiz), san Silbestre, udaberrikoak.
- Txirringulakari probak: Haimar Zubeldia zikloturista proba, errepideko txirringulakari probak
- Mendi lasterketak: Pagoeta lasterketa (bakarkakoa eta bikote mistoena-parekidea), mahasti krosa
- Zarauzko triatloi proba
- Getaria-Zarautz itsas zeharkaldia
- Saskibaloia 3x3
- Erakustaldiak; halterofilia, herri kirolak, bi harri txapelketa, gimnasia erritmikoa...
- Pilota txapelketak: Zaporra pilota, emakume pala, egokitua...
- Arrauna: Zarauzko ZAE, ACT estropadak, Trainerila probak...
- Surf txapelketak: Ibon Imaz, profo4teen, proZarautz open adaptive
- Kirol ikuskizuna-partida berariazkoak: igoera faseak, aste santuak, gabonak eta uda garaian.
- Ospakizunak: Pagoeta eguna
- Ekimen puntualak: txirringulakari txiki eguna, orientazio proba, bolo eta toka txapelketa, judo jardunaldia, Kayak proba ...

Horietako ekitaldi asko udalerrian oso errotuak daude eta edizio askorekin herri ondare ere badira. Jarduera fisikoa sustatzeaz gaiz, beste onura gehiago ere ekartzen dizkiet ekitaldiek Zarautzi, Udal gisa zaindu beharrekoak: herri identitatea eta aktibazioa, boluntariotza sustatzea, aniztasuna, parekidetasuna (propio horretara bideratutakoek), ekonomia suspertzea, Zarautz marka gisa ezagutaraztea...

Amaitzeko, aipatu beharrekoak era berean, Zarautzik kanpo mendi irteeren bidez Pagoeta mendi-elkarteak eta Gurutxurtu eta Txatxarro aisialdi mendi taldeek egiten duten jarduna, hurrek eta herritarrak naturarekin harremanetan ezarri eta sedentario izaerak herritarrei ekarri liezaiokeen gabeziak murriztuz eta naturak haur helduei dakarkien onura guztiak eskainiz.

Herritarren mugikortasun moduak eta mugikortasun antolamendua

Hiriaren baitan **mugikortasuna** antolatzeko moduak eta mugitzeko eskaintzen diren zerbitzuek eragin zuzena dauka pertsonen osasunean, izan ere pertsonen **bizi-ohituretan** zein **ingurumen osasunean** eragin dezake. Herriak eskaintzen dituen mugikortasun azpiegiturek pertsonen joan-etorriak baldintzatuko dituzte eta dagoen zirkulazioaren arabera airearen kalitatea eta kalitate akustikoa hobea edo txarragoa izango da.

Pertsonen bizi-ohiturak aldatuz doaz eta geroz eta gehiago mugitzen gara, bai udalerrian bertan, baita udalerritik kanpo ere. Urola kosta eskualdeko joan-etorri gehienak (astelehenetik ostegunera) eskualdean bertan egiten dira (%86,3), eta ondoren Donostiara (%4,7) (mugikortasun inkesta, Eusko Jaurlaritzak, 2016). Bidai hauen gehiengoak **lanerako edo aisialdirako** egiten dira, %37 eta %24 hurrenez hurren. Aipagarria da, aisialdi, erosketa, ikasketa eta kudeaketan gehiengoak (%85etik gora kasu guztietan) eskualde mailan egiten direla.



Iturria: Udalmap

Lanari dagokionez, zarautzar gehienak herritik kanpo egiten dute lan, biztanleriaren %60,5ak hain zuzen ere 2016.urtean. Nahiz eta datua ez eguneratu izan, adierazgarria da datuaren goranzko joera.


Mugikortasun inkestaren arabera (Eusko Jaurlaritzak, 2016), eskualdeko biztanleen **garraio modu nagusia oinezkoa edo bizikletazkoa da (%58)**, eta hau batez ere herri edo eskualde mailako joan-etorriak egiteko izaten da. Hala ere, auto pribatuaren presentzia nabarmena da udalerrian eta Zarautzarren bizitzan oso errotuta dago, **joan etorrien %38a autoz** egiten delarik. Nahiz eta ez dagoen Zarautzko udalerrirako daturik, aipagarria da, bizikletaren erabilera handia dela, honetan asko laguntzen duelarik udalerraren orografiak.

Zarauzko **motordun ibilgailuen parkeak** goranzko joera erakusten du, horrela 2016-2019 aldian %3,4an igo da ibilgailu kopurua. Ibilgailu parkearen indizea biztanleko aztertzen badugu, 2019an 0,57 ibilgailukoa da (Udalmap), kopuru hau eskualdekoa zein Gipuzkoakoa baino baxuagoa izanik, 0,65 eta 0,66 hurrenez hurren.

Motordun ibilgailuen %72 inguru autoei dagokie eta 2016 eta 2019 urteen artean %6an igo da kopurua. Turismo parkea 0,42 ibilgailu/biztanlekoa da 2019an hau ere eskualdea eta Gipuzkoa mailakoa baino baxuagoa (0,45 eta 0,46 auto/biztanleko) izanik.

Auto elektriken kopurua ere urtetik urtera gorantz doa, hala ere, kopurua baxua da oraindik.


Ibilgailu parkearen eboluzioa



Iturria: Udalsarea 2030

Nahiz eta ibilgailuen kopuruak goranzko joera erakusten duen, trafiko istripuen ondorioz izaten diren biktimak gutxituz doa, baita istripu kopurua ere. Hurrengo grafikoan Zarautzen gertatzen diren istripuen eboluzioa aurkezten da (barne hartzen ditu udalerrri barruko istripuak baita kanpoko errepideetakoak ere, AP-8 eta N-634)

Trafiko-istripuek eragindako lesioen biktimak



Iturria: Udalsarea 2030

Zarautzen urtetik urtera trafiko istripuak gutxituz doa eta gainera gertatzen diren istripu horien ondorioz egoten diren biktimen kopurua (hildakoak, zauri larriak, zauri arinak) ere gutxituz doa.

Mugikortasun osasuntsuago, seguruago eta jasangarriago bat sustatuz Zarauzko udalak lanean dihardu bai **oinezkoentzako bideak** eta espazioak irabazten, baita **bizikleten** mugikortasuna ahalbidetzeko ibilbideak eraikitzen.

Horrela, Gipuzkoako Bizikleta Bideen Lurralde Arloko Planak Donostia eta Mutriku arteko 2. Ibilbide proposatzen du, zeinak Zarautz Aia eta Getariarekin lotzen duen. Herri barruko bizikleten bidea udalaren eskumenekoa da, eta nahiz eta 2015ean onartutako Zarauzko bizikleta-bide eta azpiegituren plan bereziak bidegorrien 11 ibilbide proposatzen dituen, gaur egun udaltzaingo sailaren filosofia eta erronka **oinezko, bizikleta eta autoentzako gune konpartituak** sortzea da, udalerrri osoa lotuko dutenak. Arlo honetan egin diren lan garrantzitsuak edo egiten ari direnak hauek dira: herrian abiadura murriztu egin da 30 km/h-ko eremu bilakatuz (N-634 errepidea salbu), norabide bakarreko kaleak sortzen ari dira, bide heziketa lantzeko 2 udaltzain daude, erabiltzaileen arteko elkarbizitza sustatzen da, oinezkoentzako lehentasunezko guneak sortu dira eta sortzen ari dira, espaloiak zabaldu dira, ibilgailu astunak udalerrira sartzea mugatu da, igogailu bertikalak eraiki dira, Malekoia erabilera konpartitukoa izateko lanketa... Aspektu honetan, Udaltzain sailetik ondorengoak izan daitezke erronkak:

- **Alde Zaharra oinezkoentzako gune** izateko proiektua gauzatzen ari da, bertako peatonalizazioa eta bestelako hobekuntzak burutzen ari direlarik faseka, oinezkoen lehenetsuneko gune zabala eraikiz, baita bizikleta bidezko joan-etorriak egiteko. Udalaren **erronketako bat gune hau handitzea** da. Eremua kontrolatuta dago, kamerak daude bertan ibilgailu baimenduen zirkulazioa kontrolatzeko. Horrez gain, banaketarako garraioak ordutegia dauka bertan sartzeko. Eremu guzti honetan bizitza lortu da eta bertako kalitatea nabarmen hobetu da.
- **Trenbideak udalerrria hegoalde eta iparraldean banatzen** du. Etorrizun hurbilean, tren geltoki berria eraikiko da eta honekin batera oinezkoen pasabidea egingo da bertan, eta baita beste eremu batzuetan (apeaderoa, Hegoalde...). Tren geltokia berritzeko eta pasabidea egiteko proiektua gauzatuta dago, baina eremuari zer nolako bizitza eman nahi zaion hausnartu behar da, eta oinezko eta bizikleten loturak nola burutuko diren, izan ere, gaur egun zirkulazio eremuak dira, nahiz eta Alde Zaharraren alboko eremua izan. Gainontzeko pasabideak egiten direnean ere oinezko eta bizikleten lotura horiek nola egin behar diren pentsatu beharko da.
- **Lizardi kaletik ekialderako eremuan** gaur egun ibilgailuen zirkulazioa baimenduta dago, aparkatzeko egoiliarren eremua da, eta gainera eremu honetan bizi diren bizilagunek aparkalekuak badauzkate. Baldintza hauek kontutan izanik, **etorkizunean oinezkoentzako eremua** izatea lortu nahi da, horretarako eremua peatonalizatuz.
- **Malekoian** gaur egun bizikletek ezin dute berau erabili hondartzaren eremu batetik beste batera joateko, horrela agintzen baitu ordenantzak. Udaltzain sailaren erronketako bat, malekoa oinezko eta bizikletentzako eremu konpartitua izatea da.

Hala ere, aipatu behar da gaur egun Zarautzen bizikletaz ibiltzeko arazoak egon daitezkeela. Eremu batzuetan bidegorria dago eta ez dago lotura eginda. Aldaketak egiten ari dira eta horrek eragina dauka. Gainera, urbanizazio berrien proiektuak egiten direnean bidegorriak ere proiektatzen dira auzo horrentzako, baina loturak ez dira aurreikusten.

Zarautzen oinezko eta bizikletazko joan-etorriak asko dira eta ez dago horiek kanpainen bidez sustatzeko beharrik, bai ordea, bide heziketaren bidez **eremuan erabilera egokia eta segurua** bultzatzeko beharra. Bide heziketa programa aurrera eramateaz arduratzen diren bi udaltzain daude udalerrian eta hauek batez ere ikastetxeetako ikasleekin egiten dute lan modu jarrai batean, baina baita anbulategian haurdun dauden emakumeekin eta baita adineko pertsonekin ere urtean behin oinezko lanketa bat eginez. Bide heziketa programan bide heziketa saioak ematen dira parte hartze dinamika desberdinen bidez (jolasak, dilemak, eztabaida, roll playing,...) eta ondoren, mugikortasuneko ingurune “errealean” aplikatuz.

Eskola bidea (Oinbusa) ere bultzatu da udalerrian, eta gaur egun oso errotuta dago Zarautzen. Honen bidez mugikortasun segurua, aktiboa, autonomia eta jasangarria sustatzen da ikastetxeetan. 2019an lanketa bat egin zen eta ondorengo hobekuntzak eta lanketak egin ziren: ikastetxe gehiagotara zabalduta zen eskola bidea, mapa bateratua osatu zen, geltokien seinaleztapenak ezarri ziren udalerrian, ikasleekin lanketa egin zen, Gipuzkoa kalearen diseinua aldatu zen (ikastola aldean eta Antoniano aldean), Oinbusa marka sortze, komunikazio egitea...

Azken urteetan Ikastetxeetan ikasle asko joaten dira oinez edo bizikletaz ikastetxera, eta horrez gain, hiri autobusaren ibilbideetan ikastetxeak daude barneratuta ordutegi egokituarekin, gainera, ikastetxe guztiek daukate autobus geltokia bertan garraio modu hau erabiltzen dutenentzat.

Bestalde, **abandonatutako bizikleta** asko kalean aurkitzen dira. Udaltzaingotik abandonatutako bizikleta hauek kaletik ateratzeko kanpainak burutu da. Gauen zehar udalerriko eremuetan errondak egin dira eta bizikletei pegatinak jarri zaizkie, bi hilabetetan hor jarraitu duten bizikletak erretiratu egin dira. Gutxi gora behera 600 pegatinak jarri dira eta horietatik 200 bat erretiratu egin dira, ONG batik emanez edo Garbigunera eramanez. Bigarren kanpaina bat aurreikusita dago.

Mugikortasunarekin amaitzeko, udalak **ibilgailu eta oinezkoen zirkulazioari buruzko ordenantza** badauka. 2020an **Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Plana** diseinatzen hasi da, zeina 2022an onartzea aurreikusten den. Plan honen erronkak ondorengoak dira:

- Herri barruan oinezko, bizikleta eta ibilgailuentzako eremu konpartitu seguru eta kalitatezkoak sortzea
- Oinezkoentzako eremuak irabazten joatea
- Ibilgailu eta bizikleta elektrikoak sustatzea
- Banatzaileak herrigunetik ateratzeko alternatibak bilatzea
- Aparkalekuak irabaztea

Ingurumen osasuna: airearen kalitatea, zarata eta kutsadura elektromagnetikoa

Arestian aipatu bezala, mugikortasunak eta batez ere ibilgailuen zirkulazioak, eragin zuzena dauka **airearen kalitatean** atmosferara egindako isurien foku nagusiak eragiten baititu, baina ez bakarrik. Hauek dira Zarauzko foku nagusiak:

- **Ibilgailuen zirkulazioa:** errepide guztiak kutsadura atmosferikoren foku izan arren, Zarautzen honako hauek dira trafikoaren eguneroko batez besteko intentsitate (EBBI) gehien dutenak:
 - o Udalerriko kaleetan dagoen trafikoaz gain, bertatik igarotzen diren foru-errepideak ere gehitu behar dira. Bereziki, N-634 errepidea eta AP-8 autobidea, udalerrira ekialdetik mendebaldera zeharkatzen dutenak. Gainera, GI-2633 errepidea gehitu beharko litzateke, herrigunea Meagas gainarekin lotzen duena, eta, neurri txikiagoan bada ere, GI-3791 eta GI-3162 errepideak, hirigunearen hegoaldean daudenak.
- **Industria:** Izaera industrialak duten isuri foku nabarmenen identifikazioa PRTP Isuri eta Iturri Kutsatzaileen Estatuko Erregistroan dagoen informazioan oinarrituz egin da. Inbentario honen arabera Zarautzen ez dago foku nabarmenik.
- **Etxebizitza eta zerbitzuen sektorea:** erregaien kontsumoak (berokuntza sistema, etxeko ur beroa eta sukaldeak eragindako isuriak).

Zarautzetik gertuen dagoen airearen kalitatea kontrolatzeko estazio finkoa Pagoetakoa da, baina ez da Zarautzen gertatzen denaren adierazgarri; hori dela eta, 2021ean airearen kalitateari buruzko azterlan bat egin zuen udalak, eta honako parametro hauek neurtu ziren: NO₂, NO, COV (Konposatu organiko hegazkorak) eta partikulak. Neurketak egiteko lehenik estazio mugikorrarekin udalerriko argazki orokorra egin zen, eta ondoren hainbat puntutan estazio finkoak ezarri ziren hainbat egunez neurketak egiteko.

Azterketaren ondorio nagusia Zarautz udalerriko **airearen kalitatea ONA** gisa sailka daitekeela da. Bestalde, kalitateari eragiten dion foku nagusi mugikortasuna da.

Hala ere, **lotura argia ezar dezakegu zirkulazioaren dentsitatearen eta ingurumen-kalitatearen** artean, Irita kaleko biribilgunean egindako laginketek eta Elizaurre Kalean egindakoak erakusten duten bezala. Lehenengo puntuan airearen kalitatea ONARGARRI moduan sailkatzen da eta bigarren kasuan MODERATU moduan.

Zarauzko **zarata maparen** arabera (2018), **errepideetako bide zirkulazioa eta gaueko aisialdia** dira inguruan maila handienak sortzen dituen zarata fokuak, N-634 errepideak herria zeharkatzen duelako eta AP-8 autobidea hirigunearen hegoaldeko etxebizitzetatik oso gertu dagoelako. Ondorengoak ere zarata fokuak dira:

- **Hiri zirkulazioari** dagokionez, etxebizitzetan zarata gehien sortzen duten kaleak Mitxelena, Araba eta Urdaneta kaleak eta Gipuzkoa etorbidea dira.
- **Trenbideak** sortutako zaratari dagokionez, mailarik altuenak trenbidearen lehen lerroan dauden fatxadetan neurtzen dira, batez ere Lapurdi, Mitxelena eta Iturrubidea kaleetan.
- **Industriari dagokionez**, industrialdeetan bertan du eragina, eta industrietatik gertu dagoen etxebizitza isolaturen bati baino ez dio eragiten.
- **Gaueko aisialdiari dagokionez, ebaluatutako eremuetan eragin handia dago, eta zarata-maila** handia dago jarduera dagoen gauetan. Zarata-maila altuenak dituzten eremu ebalatuak Barren Plaza eta Loja Zaharra kalea dira.

Egun, arratsalde eta gauetan (ingurumeneko zarata-foku guztiak eta altuera guztiak kontuan hartuta) bizitegi-eremu bati aplikatu dakizkiokeen **kalitate-helburuen ginetik** daude, **Zarauzko biztanleriaren % 5, % 2 eta % 13**, hurrenez hurren.

Nabarmenezkoa da egoera akustikoa asko aldatzen dela uda eta urteko gainerako sasoen artean, eta, beraz, baliteke urteko batez besteko zarata-mapa batek benetako egoera behar bezala ez islatzea.

Mugikortasunean eta honen antolaketan egin diren jarduerak eragina izango dute airearen kalitatean eta kalitate akustikoan. Hala ere, garraioa eta mugikortasunaz gain udalak beste eremu batzuk ere landu ditu edo lantzen ari da ingurumen osasuna hobetzeko. 2018ko abuztuan, Udalak **Zarauzko Zarata Mapa** onartu zuen eta 2020ko uztailean, 2020-2024 **Zarauzko Zaratari Buruzko Ekintza Plana** onartu zuen, zeinaren bidez ondorengo helburuak lortu nahi dira:

- Gune lasaiak babestea: Eremu lasaiak mugatu eta hauen gaineko planak egin (Iñurritza, Pagoeta eta Garate-Santa Barbarako guneak) eta Babes Akustiko Bereziko Eremuak onartu.
- Errepideen eragina murriztea: garraio eta mugikortasun neurriak definitu, azpiegituren hobekuntzak zehaztu, zaborrak biltzeko zerbitzuak sortutako arazoa aztertu, kale garbiketa...
- Aisialdiaren eragina murriztea: Terraza, kontzertu eta ekitaldietan sor daitekeen problematika aztertu eta konpondu.
- Guzti hau kudeatzeko informazioa bilketa, tratamendua, dibulgazioa, kontzientziaketa...egitea ere aurreikusten da.

Zarataren inguruan egin diren **ekimen batzuk** aipatzearen ondorengoak izan daitezke:

- Orokieta Haur Hezkuntzako eskolan autopistaren eragina aztertzeke neurketak egin dira eraikinaren kanpoko eta barruko eremuetan, honen ondorioz, Bidegiri, panel akustikoak ezartzeko eskaera egin zaio.
- Orokieta frontoian guraso elkarteak eskatuta erreberberazio neurketak egin dira
- Ostalaritzako terrazen inguruko lanketa egin da Barren Plazan.
- *Ostalaritza eta merkataritzako establezimenduek bide publikoa erabiltzeari eta okupatzeari buruzko udal ordenantzan* gaineko lanketa egin da eta gaur egun jendaurrean dago.
- Sentsibilizazio kanpaina bat dago diseinatuta (oraindik ez da plazaratu) zarataren inguruko "Zarautz zaratarik gabe hobe".

Gainera, Zarata eta Bibrazioei Buruzko Udal Ordenantza onartu zuen 2015.urtean. Eta udalak beti izan du lehenetsun bezala jarduerak sortutako zarataren kontrola: jarduera ekonomiko berriei neurri zuzentzaileak jartzen zaizkie, jardueraren arabera musika ekipoek soinu-mugatzailak behar dituzte, ostalaritza jardueren espedienteak birpasatzen dira beharrezkotan neurri zuzentzaileak jarri, sailkatutako jarduerari ikuskapenak egiten zaizkie, udalera iristen diren kexa eta salaketei erantzuna ematen zaie, udaltzainek zarata neurtzeko baliabideak eta prestakuntza dute, karga eta deskarga eta bide publikoko beste lanek ordutegia eta zarata maila mugatua dute...

Ingurumen osasuneko beste alderdietako bat **kutsadura elektromagnetikoa** da. Azken urteetan gero eta ikerketa gehiago egiten dira **telefonía mugikorraren antenek** sortzen duten kutsaduraren gainean, eta nazioarte mailako kontrol eta uhinen emisio mugak ezartzen dituzten ebazpen gero eta gehiago daude. Zarautzen kasuan, udalerrian badago kutsadura mota honi buruzko kezka. 2016an Gipuzkoa kaleko antenaren gaineko neurketak egin ziren, eta nahiz eta datuak Estatuko Legeak dioenaren barruan egon, Europar Kontseiluak ezarritako gomendioen gainetik aurkitzen ziren. Hori dela eta Udalak mozio bat egin zuen Ministerioan eta eskaera bat antena konpainiari.

Badaude pertsonen osasunean eragin zuzena duten bestelako alderdi batzuk ere, hala nola, ura, energia, aldaketa klimatikoa, arrisku eta larrialdiak, lurzoru kutsatuak eta hondakinak, biodibertsitatea...baina arlo guzti hauek diagnostiko honetako beste ataletan lantzen dira.

EKIMEN ESANGURATSUAK

Pertsonen osasuna

- Pertsonen **osasuna eta ongizatea modu komunitario eta zabalean** lantzen da.
- **Mahai soziosanitarioaren bitartez** ekimen desberdinak antolatzen dira (formakuntzak, hitzaldiak,...) Udala eta Osasun Zentroarekin arteko lankidetzan, **gizarte eta osasunaren arteko begirada eta lankidetzat bateratua** sustatuz.
- Herritaren osasuna eta ongizaterako lanean aritzen diren elkarten zabalkunderako bi gida osatu ziren: **Zarauzko Osasun elkarten gida** eta **Dibertsitate Funtzionaleko elkarten gida**, horiekin batera azoka txiki bat egin zelarik elkarte horien lana ikusarazteko.

Jarduera fisikoa eta Kirola

- **Kirol ibilbide guztietan programa zabala:** udalerrian dagoen dibertsitate eta errealitate desberdinei egokitutako jarduera fisikorako eskaintza zabala
- **Tarifa soziala** jarduera fisikoari eta Kirol praktikarako instalazioen erabilerekin lotuta.
- Kirol elkarteek lan handia egiten duten **kirol aukera zabala** eta erakargarria eskaintzeko. Klabe dira besteak beste, kirol jarduera egiten duten gazte kopurua altua izatea ekartzen dutelako; gaur egun gazteei erasate dien gaiak ekiditeko bide da kirola (teknologia gabeko guneak, adikzioak, buru gaixotasunak, bakarkadea...).
- Urtean zehar antolatzen diren **kirol ekimen-ekitaldien aniztasuna** zeintzuen bitartez zentzu onenean herria aktibatu eta udalak sustatu zein zaindu nahi dituen baloreak garatzeko oso baliagarri diren.

Mugikortasuna

- **Alde Zaharra oinezkoentzako eremu bilakatzea:** 2012an onartu zen planaren bidez Alde Zaharra oinezkoentzako eremu bilakatu da, bertara ibilgailu motordunen sarrera mugatuz. Honek bertako komertzioari eta bertako bizitzari kalitatea eman dio. Gainera, gaur egun udalerrian bizikleten erabilera handia da, eta Alde Zaharrean ere hauen presentzia areagotu egin da, oinezko eta bizikletak eremu bera modu seguruan eta errespetuzkoan eginez.
- **Erabilera konpartituko guneak sortzea:** Udalerrian ez dira bizikletentzako bide eskusiboak sortu nahi, baizik eta oinezkoentzako eta motordun ibilgailuentzako eremuetan eremu konpartituak sortzen ari dira.

- **Bide Heziketako programa:** Zarautzen Bide Heziketara bideratutako bi udaltzain daude esperientzia oso zabalekoak. Beraien bidez, ikastetxeetako ikasleak, adineko pertsonak eta haurdun dauden emakumeak hezten dira. Gainera, **eskola bidea** oso errotuta dago udalerrian.

Ingurumen osasuna

- **Airearen kalitatea ezagutzeko azterlana:** Lehen aldiz egin da udalerriko airearen kalitatea ezagutzeko azterlana Zarautzen. Azterlan honetan udalerrri osoa hartu da kontutan, horretarako neurketak egin direlarik.
- **Zarata mapa eta 2020-2024 Ekintza Plana.** Lehen aldia da zarata mapa osatzen dena eta bertatik eratorritako Ekintza Plana egituratzen dena. Zarata mapak baimendu du ezagutzea Zarautzarren zein portzentaje bizi den kalitate-helburuen gainerik. Eta plana dagoeneko gauzatzen ari da hainbat ekimen burutuz.



ERAGILEEN PERTZEPZIOA

- Zarautzen dauden osasun eragileekin Lagunkoiaren mahaia osatzeko beharraz hitz egiten da ((Ingurunea, zerbitzuak eta abar adinekoen beharretara eta gaitasunetara egokituta egotea helburu duen izen bereko ekimenari lotua).
- Kirolarien herria dela aipatzen da, kirol elkarteek herriari bizitza ematen diotela. Hala ere, kirol egokitan eta inklusiboan oraindik ere lana egiteko dagoela azpimarratzen da.
- Kirola egiteko herri erreza dela esaten da, ongi antolatuta eta koordinatuta dagoela.
- Golf eremua herriarentzat kirolgune eta naturgune izatea aipatzen da.
- Itsasoan pertsonen bainurako sailkatuta duten eremua arriskutsua dela aipatzen da, bertan zurrunbiloak baitaude. Itsasoaren eta hondartzaren eta biotopoaren erabilerekin gatazkak daudela aipatzen da erabiltzaile desberdinen artean.
- Azpimarratzen da baita ere hazten ari den herria dela eta kirol baliabideak eskas gelditzen ari direla aipatzen da.
- Kirolegiaren eta anbulategiaren arteko elkarlanaren bidez egiten zen kirol orientazioko zerbitzua faltan botatzen dela aipatu da, zeina geldituta egon den.
- Bizitza aktiboa eta osasuntsua sustatzeko programak badauden arren hauek gehiago indartu behar direla uste da, batez ere parte hartzea sustatuz.
- Udalerrian trafikoa izugarria dela adierazten da, asko herritik kanporako bidaiak direlarik. Udalerriak komunikazio ona duela eta konbinazio onak daudela ere adierazten da (autobusa, trena, autopista...), eta herri segurua eta eroso dela. Hala ere, kezka sortzen du dauden komunikaziorako azpiegiturak horiek egokitu behar diren edo ez, azpiegitura gehiago behar ote diren,... Horrez gain, kotxearen erabilera murrizteko erabaki ausartak faltan botatzen dira.
- Udalerrri barruko mugimenduetan baloratu egiten da udaltzainek egiten dituzten bide heziketako ikastaroak, baina hala ere, bizikleten eta oinezkoen artean gatazkak sortzen direla adierazten da.
- Aipatzen da herri eroso dela bizikletaz eta oinez mugituz guztia daukazulako eskura, eta bizikleta asko erabiltzen dela. Hala ere, eremu batzuetan irristakorrak diren edo hondatuta dauden lurzoruak badaudela aipatzen da.

- Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat edo bestelako beharrak dituzten pertsonentzat (gurpildun aulkiak, umeen siletak...) kaleak nahiko konplikatuak direla aipatzen da (bizikleten joan-etorriak, terrazak...).
- Nahiz eta bizikleta asko erabiltzen den, bidegorri sarea indartu beharko litzakeela adierazten da, bidegorri sarea zabalduz eta bideen arteko lotura egokiak eginez.
- Trenaren azpiegituren herria bitan banatzen dutela esaten da, eta honek arazo asko ekartzen dituela, horien artean oinezko eta bizikleten mugikortasunean.

ETORKIZUNERA BEGIRAKO JOERAK

Etorkizunari begira, osasuna eta ongizatearen arloan ondorengo lan-ildo edo tendentzia nagusiak identifikatzen dira:

Pertsonen osasuna

- Koordinazio soziosanitario oinarri izatea pertsoneri arreta eta zerbitzuak eskaintzerakoan, berau sistematizatu eta sendotuz.

Jarduera fisikoa eta Kirola

- Ekitatea jarduera fisikoa eta kirolean herritar anitz guztiek bizitza aktiboa eta ondorioz osasuntsua izan dezaten. Horretarako beharrezkoak diren kalitatezko baliabide, eskaintza eta ezaugarriak bermatuz.

Mugikortasuna:

- Bizikletentzako bide eskusiboak kentzea eta erabilera konpartituko eremuak sustatzea, nabarmenduz malekoian eremua konpartitua izatea.
- Oinezkoentzako eremuak zabaltzea: Alde batetik, tren geltokian egingo diren berrikuntzak aprobetxatuz, eremu horri zein erabilera eta bizitza eman nahi zaion hausnartzea oinezko eta bizikleten erabilera kontutan izanik. Eta bestalde, Lizardi kaletik ekialderako eremuaren peatonalizazioa burutzea, besteak beste.
- Ibilgailu elektriko eta bizikleta elektrikoak sustatzea.
- Banatzaileak hirigunetik ateratzeko alternatibak eta moduak bilatzea.
- Orokorrean Hiri Mugikortasun Iraunkorraren Plana diseinatzea eta honen garapena burutzea.

Ingurumen osasuna

- Airearen kalitatean ekintzak aurrera eramatea: orain arte egindako neurketen planteamenduarekin jarraitzea eta neurri zehatzak ezartzea.
- Zarataren Ekintza Plana aurrera eramatea orokorrean.
- Ostalaritzako terrazen inguruko hausnarketa egitea, zehazki, edarien (batez ere alkoholduen) kontsumoa egiteko eran eta terrazen erabileran.
- Zaratak osasunean duen eraginaren garrantziaz ohartarazteko sentsibilizazioa egitea eta horren aurreko ekintza zehatzak martxan jartzea.
- Kutsadura elektromagnetikoa adi egotea.